



Arartekoaren 2023R-178-23 Ebazpena, 2023ko apirilaren 26koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zaio, 1. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-datarik ez duten *“Eraikuntza zibilak eta eraikingintza”* espezialitateko lanpostuei dagokienez (ofizialki argitaraturiko Lanpostuen Zerrendan jasota dauden eta karrerako funtzionarioen behin betiko destino gisa esleitu gabe dauden lanpostuak barne), unibertsitatez kanpoko irakasleak lekualdatzeko lehiaketako lanpostuen eskaintza hedatu dezala.

Aurrekariak

1. Arartekoak kexa-idazki bat jaso zuen, Hezkuntza Saileko irakasle funtzionario batek aurkeztua, zeinak Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren¹ bidez deituriko lekualdatze-lehiaketan parte hartzen baitzuen.

Azaldutakoaren arabera, pertsona hori behartuta zegoen lekualdatze-lehiaketan parte hartzera, hezkuntza-administrazio horrek iragarritako hautaketa-prozesu bateko praktika-fase bat gauzatzen ari baitzen eta, horren ondorioz, bere behin betiko destinoa lortu behar zuen *“Eraikuntza zibilak eta eraikingintza”* espezialitatean.

Prozesuan, beraz, espezialitate horretako lanpostuetarako parte hartzen zuen, eta honako ikastetxe hauetakoren batean lortu nahi zuen destinoa: Eraikuntza LHII (010296), Barakaldo LHII (014069), Emilio Campuzano LHII (014205) edo Eraikuntza Bizkaia LHII (014945).

Kexa-idazkian adierazten zen, horren harira, ez zirela eskaini lanpostu huts guztiak aipaturiko ikastetxeetan; horietako batzuk baino ez.

2. Arartekoak ikastetxe horien egoera aztertu zuen, bai eta Hezkuntza Sailak prozesuan eskaini beharreko lanpostuak zehazteko onartu zuen araudia ere.

Gaiaren lehen hurbilketa batean, erakunde honek egiaztatu zuen 1. hizkuntza-eskakizuna (HE) duten eta derrigortasun-datarik ez duten lanpostu asko baztertu egin zirela deialditik; hortaz, hezkuntza-administrazioa jo zuen hainbat gogoeta helarazteko eta barne-araudian bertan gai horren harira jarduteko oinarri gisa arautzen dituen irizpide espezifikoak azpimarratzeko.

¹ Agindua, 2022ko urriaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita estatu-mailako lekualdatze-lehiaketa unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat, lanpostuak betetze aldera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan



Gogoeta horiek bat datoz, funtsean, ebazpen honek oinarri dituenekin; hortaz, aurrerago azalduko dira.

Arartekoak, era berean, kexan azalduetako inguruabarren eta lanpostuak baztertzeko arrazoien inguruko informazioa eskatu zuen.

3. Hezkuntza Sailaren erantzun-txostenean honako hau adierazi zen:

- Antolakuntza-arrazoiengatik, lekualdatze-lehiaketan irteten diren orduak eskola-orduei dagozkie (egiturazkoak) eta ez ordu funtzionalei (edo guztizkoak).
- Praktiketara dauden eta oposizioa egin zuten irakasleek 2. HE dute egiaztatuta (oposizioko baldintza), hortaz, 1. HEko eta 2. HEko lanpostuak bete ditzakete.
- Lekualdatze-lehiaketan *“Eraikuntza zibilak eta eraikingintza”* espezialitateko plaza eskaintzen dira 7 ikastetxetan.
- Kontuan izan behar da aurten lekualdatze-lehiaketari merezimenduen arabera finkatzeko ohiz kanpoko lehiaketa bat gehitu behar zaiola.
- Hori guztia dela eta, lekualdatze-lehiaketan 9 plaza eskainiko dira, eta praktiketara dauden 8 irakasleek horiek betetzeko aukera izango dute.

Txosten horrek ez zuen egin erakunde horrek bere eskaeran jasotako argudio eta gogoeten baloraziorik.

4. Aurreko espediente baten izapidetzea zela eta, Arartekoak orain planteatutakoaren oso antzeko kexa bat ezagutzeko aukera izan zuen. Kexa horretan, 2021ean iragarritako lekualdatze-lehiaketan parte hartu zuen pertsona batek zalantzan jarri zuen Gasteizko Federico Baraibar BHI ikastetxean 1. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-datarik ez duen *“Matematikak”* espezialitateko lanpostu batetik kanpo geratu izana.

Hizpide dugun espedientea izapidetzeko, Arartekoak bi informazio-eskaera bidali zituen Hezkuntza Sailera. Hezkuntza-administrazioak onarturiko araudia bera zuten eskaerek abiapuntu; halaber, ikastetxe eta espezialitate horretan dauden lanpostu hutsetako bat bera ere ez eskaintzearen arrazoi zehatzak ezagutzeko eskatu genion.





Erakunde honen esku-hartzea 2022ko urriaren 14ko Ebazpenaren² bidez amaitu zen. Horren bidez, honako ondorio hauek atera ziren:

“1. Federico Baraibar BHI zentzoko “Matematika” espezialitateko eta derrigortasundatarik gabeko 1. hizkuntza-eskakizuneko sei lanpostuak Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bidez deitutako lekualdatzeen lehiaketatik ateratzeko erabakia ez dago nahikoa justifikatuta.

2. Lekualdatzeen lehiaketan eskaini beharreko lanpostuak zehazteko berariaz onetsitako araudia aplikatuz, lanpostu horiek prozesu horretan deitu izan behar ziren, horiek betetzeko interesa zutenen mugikortasun-eskubidea bermatze aldera.”

Gogoetak

1. Otsailaren 19ko 2/1993 Legearen³ 24.4 artikuluan honako hau ezartzen da lekualdatze-lehiaketetan eskaini behar diren lanpostuei dagokienez:

“Lehiaketan, herzkuntza-administrazioak erabaki ditzan hutsak betekko dira. Dena dela, eskolako plangintzan horien aribidea ohartemanda dagoeneko lanpostuei dagozkienak sartu beharko dira”

Bestalde, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren⁴ 9.4 artikuluan ere horren inguruko xedapen bat jasotzen da, zeina aplikagarria baita kasu honetan, izan ere, kexa honek hizpide duen lekualdatze-lehiaketa estatu-mailakoa da. Zehazki, hau aipatzen da:

“En los concursos se ofertarán los puestos vacantes que determinen las Administraciones educativas, entre los que se incluirán, al menos, los que se produzcan hasta el 31 de diciembre del curso escolar en el que se efectúe la convocatoria, así como aquellos que resulten del propio concurso siempre que, en cualquiera de los casos, la continuidad de su funcionamiento esté prevista en la planificación educativa y en función de los criterios de estabilidad del profesorado en un mismo centro que las Administraciones educativas puedan establecer.”

Arau-esparru horren barruan, zeinak prozesuan eskaintzeko modukotzat jotzen baititu beren funtzionamendua eta jarraitutasuna eskola-plangintzan jaso diren lanpostu guztiak, Hezkuntza Sailak lanpostu horien antolamendu-gaitasuna

² Eskuragarri hemen: <https://ararteko.eus/eu/arartekoaren-2022ir-540-22-ebazpena-2022ko-urriaren-14koa>

³ 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarte Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.

⁴ 1364/2010 Errege Dekretua, urriaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan bildutako irakasle kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketak eta haiek bete beharreko lanpostuen beste hornikuntza-prozedura batzuk arautzen dituena.



arautu zuen, Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2022ko azaroaren 14ko Ebazpenaren⁵ bidez.

Hala, testu horretan lekualdatze-lehiaketan eskaini beharreko lanpostuak zehazteko erabili beharko liratekeen irizpide espezifikoak ezarri ziren; zeinak honela laburtu baitaitezke:

- Ikastetxe bakoitzeko lanpostuen zerrendan dauden plazen kopurua hartuko da kontuan, espezialitatearen eta hizkuntza-eskakizunaren arabera. Ezin izango dira eskaini ikastetxearen lanpostuen zerrendan ageri ez diren lanpostuak.
- 2022-2023 ikasturtean dagokion espezialitateko 17 eskola-ordu dituzten plazak eskainiko dira, edo hondarra 12koa edo gehiagokoa dutenak. Ez dira kontuan hartuko antzeko espezialitateetako orduak ezta zuzendaritza-karguengatik murriztutakoak ere, edo zentroko proiektuengatik edo beste arrazoiren batengatik murriztutakoak.
- Arau orokor gisa, lanpostu huts guztiak eskainiko dira, baita lanpostu hutsak hartzen dituztenek utzitakoak ere. Hala ere, lanpostu huts edo bigarren aldiko bat kendu ahal izango da, honako arrazoi hauengatik plaza desager daitekeenean:
 - Aurreikuspenen arabera, ikastetxeko taldeen kopurua jaisteagatik.
 - Irakaskuntzak bat egiteko edo integratzeko prozesuetan inplikaturako ikastetxeak.
 - Lanpostu huts edo bigarren aldiko bat kentzea gomendatzen duten beste egoera edo arrazoi batzuk.

2. Urtarrilaren 24ko 10/2023 Dekretuaren⁶ bidez 2022-2023 ikasturteko Lanpostuen zerrenda onartu zen, eta lehenago Hezkuntza Sailaren webgunean zerrenda horren behin betiko proposamen gisa argitaratu ziren datu berdinak mantendu ziren (datu horiek lekualdatze-lehiaketan lanpostu hutsak zehazteko oinarri izan ziren).

⁵ *Ebazpena, 2022ko azaroaren 14koa, Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariena, ondorengoak arautzeko: bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko, lanbide-heziketako irakasle teknikoen kidegoko, musika eta antzertiko irakasleen kidegoko lekualdatze-lehiaketan 2022-2023 ikasturtean eskainiko diren lanpostuak zeintzuk izango diren zehazteko irizpideak.*

⁶ *10/2023 Dekretua, urtarrilaren 24koa, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa, lanbide-heziketa, hizkuntza-irakaskuntzak, arte-irakaskuntzak, musika-irakaskuntzak, kirol-irakaskuntzak, urrutiko hezkuntza eta helduen hezkuntza ematen duten Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetako lanpostuen zerrenda onartzen duena, irakaskuntza horietako lan-legepeko irakasleentzat eta irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat gordeta.*



Zerrenda horren arabera, honako hau da aipaturiko lanpostuaren zuzkidura-kopurua (*"Eraikuntza zibilak eta eraikingintza"*, 1. hizkuntza-eskakizuna duena, derrigortasun-datarik gabe") kexagilearen intereseko ikastetxe bakoitzean:

Eraikuntza LHII	12
Barakaldo LHII	4
Emilio Campuzano LHII	6
Eraikuntza Bizkaia LHII	8

3. Hezkuntza Sailak ezarritako irizpideak aplikatuz jakitera eman zuen lekualdatze-lehiaketan eskaini beharreko lanpostuen proposamena honako hau zen:

	Eraikuntza	Barakaldo	E. Campuzano	Eraikuntza B
Ikastetxeko LPZ	12	4	6	8
Lehiaketako lanpostuak	3	3	4	5
Atxikitako irakasleak	3	3	4	5
Lekuz aldarazitako irakasleak	0	0	0	0
Okupatutako lanpostuak	3	3	4	5
Lehiaketako lanpostu hutsak	0	0	0	0
Estalitako bigarren aldikoak	0	0	0	0

Bestalde, 2023ko urtarrilaren 16n Hezkuntza Saileko webgunean argitaratu zen eta 2023ko urtarrilaren 26an eguneratu zen lanpostuen zerrendan honako datu hauek jasotzen ziren:

	Eraikuntza	Barakaldo	E. Campuzano	Eraikuntza B
Ikastetxeko LPZ	12	4	6	8
Lehiaketako lanpostuak	3	4	5	6
Atxikitako irakasleak	3	3	4	5
Lekuz aldarazitako irakasleak	0	0	0	0
Okupatutako lanpostuak	3	3	4	5
Lehiaketako lanpostu hutsak	0	1	1	1
Estalitako bigarren aldikoak	0	0	0	0



Lanpostu hutsen behin-behineko zerrendak, 2023ko urtarrilaren 20an argitaratua eta gero zuzendua, aurreko koadroan azaldutako alderdiak mantendu zituen. Alderdi horiek, azkenik, 2023ko martxoaren 31n argitaraturiko lanpostu hutsen behin betiko zerrendan baietsi baitira.

Horren ondorioz, lekualdatze-lehiaketan espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horietako lanpostu hutsen kopurua jarraian zehazten dena da:

Eraikuntza LHII	0
Barakaldo LHII	1
Emilio Campuzano LHII	1
Eraikuntza Bizkaia LHII	1

4. Bestalde, kexagileak hezkuntza-administrazio horrek egin zen informazioa eskuratzeko eskaera bat (bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan egiturazko izaerarekin dauden espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako lanpostu hutsen kopurua zein zen galdetu zen) bideratzeko emandako ebazpen bat helarazi zion erakunde honi.

Dokumentu horretan, lanpostu horiek 2022-2023 ikasturte hasierako esleipen-prozesuan eskainitakoekin identifikatzen zituen; hortaz, azken batean, Hezkuntza Sailaren webgunean horretarako argitaraturiko zerrendari jarraikiz, honako hauek dira egiturazko lanpostu hutsak espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretan 2022-2023 ikasturterako:

Eraikuntza LHII	10
Barakaldo LHII	1
Emilio Campuzano LHII	2
Eraikuntza Bizkaia LHII	3

Horietatik guztietatik, eta ebazpen horren arabera, soilik zati bat bakarrik bete zuten aldi baterako langileek, izaera horretako zerrenda batekin, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen. Zehazki, honako hauek dira:

Eraikuntza LHII	4
Barakaldo LHII	1
Emilio Campuzano LHII	1
Eraikuntza Bizkaia LHII	3

5. Informazio hori guztia ikusi ostean, ondorioztatu daiteke lau ikastetxe horien artean, guztira, 1. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-datarik ez duten "Eraikuntza zibilak eta eraikingintza" espezialitateko 30 lanpostu daudela.



Horietako 15 bakarrik betetzen dituzten behin betiko destinoarekin atxikitako langileek; gainerako 15ek, berriz, ez dute behin betiko titularrik, baina berdin-berdin daude martxan eta aldi baterako langileek bete dituzte, urteko esleipen-prozesuaren bidez. (Egia esan, 2022-2023 ikasturteari dagokion prozesuak 16 lanpostu bete zituen, baina ez dakigu aldea datorren ikasturte osoan behin betiko destinoa duen pertsona bat ez dagoelako gertatu den, edo urtarrilaren 24ko 10/2023 Dekretuaren bidez argitaraturiko Lanpostuen Zerrendan adierazitakoez gain egiturazko lanpostu gehigarri bat dagoelako, edo bestelako arrazoi batengatik).

Hala, hasiera batean, azken lanpostu horiek, antza, lekualdatze-lehiaketa batean eskaini ahal izateko baldintzak betetzen dituzte eta eskaturiko espezialitatearen eta hizkuntza-eskakizunaren baldintzak betetzen dituzten hautagaiek bete ahal dituzte.

Puntu horretan gogorarazi behar da, Hezkuntza Sailak 2022ko azaroaren 14ko Ebazpenean ezarritako irizpideen arabera, oro har, betetzeke dauden lanpostu huts eta erresulta guztiak iragarri behar direla, kontuan izanda argitaratutako lanpostuen zerrendan dauden lanpostuen kopurua, eta 17 eskola-ordu erreal edo gainerakorako 12 ordu edo gehiago badituzte.

Araudi horren arabera, lanpostu huts bat edo erresulta bat ezabatzeko arrazoi bakarra izan daiteke posible dela horiek desagertzea honako arrazoi hauetakoren batengatik: taldeen kopurua jaitsi delako, ikasketak batzeko edo integratzeko prozesuak daudelako, edo justifikaturiko beste arrazoi batzuk daudelako.

Hala ere, ontzat jotzeko arrazoi horietakoren bat ematen dela, ez da nahikoa arrazoi horiek adieraztea; aitzitik, arrazoi horiek behar bezala arrazoituta eta justifikatuta egon beharko dute, behar bezala egiaztatzen dituzten datu objektiboen bidez.

Hori dela eta, erakunde horrek Hezkuntza Sailera bidali zuen idazkian adierazi zen Arartekoak sakon jakin behar zuela zeintzuk ziren aipaturiko 15 lanpostuak baztertu izana eustea ahalbidetzen zuten inguruabar eta elementu zehatzak.

6. Hezkuntza Sailaren erantzun-txostenean adierazten zen, alde batetik, lekualdatze-lehiaketan *“Eraikuntza zibilak eta eraikingintza”* espezialitateko 9 lanpostu eskaintzen zirela 7 ikastetxetan, eta horiek praktiketan zeuden 8 pertsonen bete zitzaketela, 2. hizkuntza-eskakizuna baitute egiaztatuta eta





1. hizkuntza-eskakizuna zein 2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak bete baititzakete.

Bestalde, txosten horretan aipatzen zen, antolakuntza-arrazoiengatik, lekualdatze-lehiaketan irteten diren orduak eskola-orduekin (egiturazkoak) bat datozela, eta ez funtzionalekin (edo guztizkoak), eta aurten lekualdatze-lehiaketari merezimenduen arabera finkatzeko ohiz kanpoko lehiaketa bat gehitu behar zaiola.

7. Lehenengo gogoetei dagokienez, Arartekoak uste du lanpostu jakin batzuetarako deialdia egin izanak ez duela azaltzen edo justifikatzen zergatik ez diren iragarri espezialitatean hutsik zeuden gainerako lanpostuak, eta hori da, azken batean, benetan garrantzitsua gaia aztertzeko.

Antolaketa-arrazoiei dagokienez, 2022ko azaroaren 14ko Ebazpenean ezartzen da Lanpostuen Zerrendan argitaraturiko lanpostuak eskainiko direla, baldin eta 17 eskola-ordu edo gainerakorako 12 ordu edo gehiago badituzte, kontuan hartu gabe antzeko espezialitateak, murrizketak edo ikastetxe-proiektuak.

Hala ere, txostenean ez da inolako daturik ematen lanpostuetatik kanpo geratu izana aipatzen diren inguruabarren ondorioz (eskola-orduen eta ordu funtzionalen arteko aldea) gertatu dela ondorioztatzeko.

Gasteizko Eraikuntza LHII ikastetxearen egoera adibide gisa hartuta, ikus daiteke ofizialki argitaraturiko lanpostuen zerrendan 1. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-datarik ez duten *“Eraikuntza zibilak eta eraikingintza”* espezialitateko 12 lanpostu jasotzen direla guztira. Horietatik, 3 behin betiko funtzionarioek betetzen dituzte; hortaz, 9 lanpostu hutsak dira eta, hortaz, iragarri egin daitezke, ezarritako gutxieneko orduak bete ezean.

lido beretik, eta Hezkuntza Sailak adierazitakoaren arabera, 2022-2023 ikasturtean ikastetxe horretan esleituriko egiturazko lanpostu hutsak 10 izan ziren.

Arartekoak ez du ezagutzen ikastetxe horretako lanpostu bakoitzaren ordutegi-banaketa edo osaera espezifikoa, eta Hezkuntza Sailak ere ez du adierazi; baina, hala ere, ez dirudi ondoriozta daitekeenik hutsik dauden lanpostu horietako bakar bat ere ez dela iristen gutxieneko ordu-kopurura, edo lanpostu horiek guztiak antzeko espezialitateko orduak, ordu-murrizketek edo ikastetxe-proiektuek osatzen dituztela.





Nolanahi ere, horietako bat ere ez da iragarri lekualdatze-lehiaketan.

Azkenik, merezimenduen arabera finkatzeko ohiz kanpoko lehiaketari dagokionez, 2022ko azaroaren 14ko Ebazpenean deskribaturikoen artean jasotzen ez den inguruabar bat da. Arestian adierazi den bezala, araudi hori berariaz egin zen lekualdatze-lehiaketa zehatz honetan eskaini beharreko lanpostuak zehazteko, eta idatzi zen unean jada ezaguna zen egonkortzeko ohiz kanpoko prozesuaren deialdia, 2022ko irailaren 30ean argitaratu zelako⁷.

Baina, horretaz gain, txostenak ez du argudio edo gogoeta gehiagorik ematen egonkortzeko prozesu horrek lekualdatze-lehiaketari ekar diezazkiokeen ondorioei buruz. Era berean, ez du ematen kexa honek hizpide dituen lanpostuak alde batera utzi izana justifikatzen duen datu objektiborik.

Ildo horretatik, eta goian azaldutako adibidearekin jarraituz, Hezkuntza Sailak informazioa eskuratzeari buruz eman zuen ebazpenean adierazten zen Gasteizko Eraikuntza LHII ikastetxean egiturazko 4 lanpostu zeudela, aipaturiko ezaugarriekin, zeinak aldi baterako langileek betetzen baitzituzten, izaera horretako zerrenda batekin, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa.

Horrela, araudian berariaz ezarriko balitz ere egonkortze-prozesua lanpostuak baztertzeko arrazoi gaitzailea zela, kasu horretan ere ezingo litzateke justifikatu ikastetxe, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretan eskaintzarik egin ez izana.

Horregatik guztiagatik, eta erakunde honen iritziz, Hezkuntza Sailak helarazitako informazioaren arabera ezin dira betetzat jo kexak hizpide dituen lanpostuak lekualdatze-lehiaketatik baztertzeko neurria justifikatutzat jotzeko behar besteko arrazoiketa-eskakizunak.

8. Lanpostu horiek lehiaketan sartu ez izanak eragotzi egiten die bai kexagileari bai bere egoera berean daudenei mugikortasunerako duten eskubidea baliatzea eta hutsik dauden lanpostuen arabera behin betiko destinoa lortzea. Horrela, lanpostu horiek hutsik mantenduko dira, gutxienez beste urtebetez, ezin izango baitira behin betiko esleitu, gutxienez, hurrengo lekualdatze-lehiaketara arte.

⁷ Agindua, 2022ko irailaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musikako eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikokoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesurako deialdia egiten duena.



Horrekin lotuta, irakasle-lanpostuak betetzeko prozesu horiei aplika dakiekeen araudiak 2. hizkuntza-eskakizuna zein 1. hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuak eskuratzeko ahalmena ematen die 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenei. Ondorioz, pertsona horien mugikortasuna ez da lehenengoetara mugatzen, espezialitateko lanpostu guztietara baizik.

Bestalde, ezin da ahaztu kexagilea zein hautaketa-prozesuko praktiken fasea gainditu duten gainerako pertsonak behartuta daudela kexa honetan aipatzen den lekualdatze-lehiaketan parte hartzera. Era berean, ezin izango dute beste lehiaketa batean parte hartu esleitutako lanpostuan gutxienez bi urte eman arte.

Bi inguruabar horiek eta irakasleen lekualdatze-lehiaketa urtero iragarri eta ebatzen direla kontuan hartuta, kontu handiz jokatu behar da arlo horretan.

Izan ere, lekualdatze-lehiaketa batean lanpostuak behar bezala arrazoitu gabe baztertzek pertsona horietakoren bat edo batzuk nahi ez duten destinoetara atxikita gera daitezela ekar dezake, izan ere, araudiak ezartzen baitu destinoa nahitaez ere esleitu dakiekeela.

Jarraian, aipaturiko pertsonak ezingo dute parte hartu hurrengo urtean iragartzen den lekualdatze-lehiaketan. Prozesu horretan aurreko lehiaketan eskaini ez ziren eta eragindako pertsonen interesekoak ziren lanpostuak sartuko balira, pertsona horiek ezin izango dituzte aipaturiko lanpostuak bete, eta oso litekeena da azkenean eskubide gutxiago duten pertsonari esleitzea.

Hala, kexaren kasuan, gerta liteke 1. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-datarik ez duten "Eraikuntza zibilak eta eraikingintza" espezialitateko lanpostu lanpostuak, aurten iragarri ez direnak eta kexagileak eskatu nahi dituenak, hurrengo lehiaketan iragartzea. Pertsona horrek ezin izango du lehiaketan parte hartu, baina bai hartu ahalko dute parte une honetan aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuan parte hartzen diharduten pertsonak.

Ondorioz, azken horiek aipaturiko lanpostuak behin betiko eskuratzeko aukera izango dute, nahiz eta karrerako funtzionario izendatzeko data kexagilearena baino geroagokoa izan; horrela, pertsona horrek lanpostu horiek lortzeko aukera guztiak galduko ditu eta nahi ez duen lanpostu batean atxikita jarraituko du.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-datarik ez duten *“Eraikuntza zibilak eta eraikingintza”* espezialitateko lanpostuei dagokienez (ofizialki argitaraturiko Lanpostuen zerrendan jasota dauden eta karrerako funtzionarioen behin betiko destino gisa esleitu gabe dauden lanpostuak barne), unibertsitatez kanpoko irakasleak lekualdatzeko lehiaketako lanpostuen eskaintza hedatu dezala.